

I. LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNA

ENPRESAREN ORDEZKARIA SEGURTASUN ETA OSASUN BATZORDERAKO ETA BATZORDE HORRETAKO ENPRESAREN BOZERAMAILEA IZENDATZEA.

Jaun hori / Andre hori:

[Lekua], [urte]ko [hil]aren [zenbaki]a.

Jaun agurgarria / Andre agurgarria

Berbaz esan genuen bezala, jakinarazi nahi dizugu izendatu zaitugula enpresak **Segurtasun eta Osasun Batzordean** izango duen ordezkari legez, **Laneko Arriskuen Aurreneurriari buruzko Legearen** 38 eta 39. artikuluetan araupetutakoaren arabera; eta horien **aldakia** erantsi dizugu.

Jakinarazi nahi dizugu, batzorde horretan enpresaren **bozeramaile** legez hitz egingo duzula.

Mesedez, sina ezazu gutun honen **bikoizkina**, **jasoagiri** legez eta izendapenaren onartzearen ezaugarri gisa; bide batez, begirunez agur.

Jasoa:

Sinatua:

Data:

Segurtasun eta Osasun Batzorde:
Comité de Seguridad y Salud

Laneko Arriskuen Aurreneurriari buruzko Lege:

Ley de Prevención de Riesgos
Laborales

aldaki:

copia

bozeramaile:

portavoz

bikoizkin:

duplicado

jasoagiri:

recibo

GUTUNA, AURRENEURRIEN ESKUORDEENTZAT EDO, BESTELA, ENPRESAKO BATZORDEBURUARENTZAT EDO TA LANGILEEN ESKUORDEENTZAT, MANUZKO ITAUNAREN ERERTZEAN, AURRENEURRIETARAKO JARDUEREGIN ARDURATZEN DIREN LANGILEAK IZENDATZEARI BEGIRA.

[Lekua], [urte]ko [hil]aren [zenbaki]a.

Jaun-andre agurgarriak:

Laneko Arriskuen Aurreneurriei buruzko Legearen (LAALen) 33.1.b) artikulua ezarri duenez, enpresarioak itaundu behar die langileei, osasuna babesteko jarduerak antolatu eta garatzeari buruzko erabakiak hartzeari dagokionez, bai eta enpresan dauden **lanbide arriskuen aurreneurriei buruzkoak** hartzeaz ere; eta, horien barruan, jarduera horiekin arduratu behar duten langileen izendapena dago, bai eta aurreneurrietarako **kanpo zerbitzua** erabiltzea ere.

Laneko Arriskuen Aurreneurriei buruzko Legearen 30.1. artikuluan ezarritakoaren esparruan, enpresak ... langile **izendatuko** bide ditu, beraiek ardura daitezen lanbide arriskuen aurreneurrien jarduerarekin.

Langile horiek jarraikook dira:

Jauna/Andrea: (eta enpresako kargua)

Jauna/Andrea: (eta enpresako kargua)

Jauna/Andrea: (eta enpresako kargua)

Mesedez, zerbait esan behar **baduzue** horri buruz, eman horren inguruko txostena 15 eguneko epean, Laneko Arriskuen Aurreneurriei **buruzko** Legearen 36. artikuluko 3. puntuaren arabera.

Mesedez, **sina** ezazue gutun honen bikoizkina, jasoagiri legez eta izendapenaren onartzearen ezaugarri gisa; bide batez, begirunez agur.

Jasoa: / Sin.: / Data

lanbide arriskuen aurreneurriak:
medidas preventivas de riesgos profesionales

kanpo zerbitzu:
servicio externo

GUTUNA, ENPRESAK AURRENEURRIEN JARDUEREN LANGILE ARDURADUNAK
IZENDATZEKO.

[Lekua], [urte]ko [hil]aren [zenbaki]a.

Jaun agurgarria / Andre agurgarria

Gutun honen bidez jakinarazi nahi dizugu, berbaz esan genuen bezala, enpresak erabaki duela zu izendatzea **aurreneurrien jarduerarekin** arduratzeko, Laneko Arriskuen Aurreneurriari buruzko Legearen 30.1. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Ezaugarriak, gaitasuna, **eskurantzak** eta eginkizunak Laneko Arriskuen Aurreneurriari buruzko Legearen 30. artikuluan daude garaturik.

Manu horren aldakia erantsi da.

Izendapen hau egiteko, langileen ordezkariari egin zaie itauna, lege horren 33. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Mesedez, sina ezazu gutun honen bikoizkina, jasoagiri legez eta izendapenaren onartzearen ezaugarri gisa; bide batez, begirunez agur.

Jasoa:

Sinatua:

Data

aurreneurri jarduera:
actividad preventiva

eskurantza:
atribución

manu:
precepto

GUTUNA, ENPRESAREN ORDEZKARIAK SEGURTASUN ETA OSASUN BATZORDERAKO IZENDATZEKO.

[Lekua], [urte]ko [hil]aren [zenbaki]a.

Jaun agurgarria / Andre agurgarria

Berbaz esan genuen bezala, jakinarazi nahi dizugu izendatu zaitugula enpresak **Segurtasun eta Osasun Batzordean** izango duen ordezkari legez, Laneko Arriskuen Aurreneurriari buruzko Legearen 38 eta 39. artikuluetan araupetutakoaren arabera; eta horien aldakia erantsi dizugu.

Mesedez, sina ezazu gutun honen bikoizkina, jasoagiri legez eta izendapenaren onartzearen ezaugarri gisa; bide batez, begirunez agur.

Jasoa:

Sinatua:

Data

ENPRESAREN ORDEZKARIA SEGURTASUN ETA OSASUN BATZORDERAKO ETA BATZORDE HORRETAKO ENPRESAREN BOZERAMAILEA IZENDATZEA.

Jaun hori / Andre hori:

[Lekua], [urte]ko [hil]aren [zenbaki]a.

Jaun agurgarria / Andre agurgarria

Berbaz esan genuen bezala, jakinarazi nahi dizugu izendatu zaitugula enpresak Segurtasun eta Osasun Batzordean izango duen ordezkari legez, Laneko Arriskuen Aurreneurriari buruzko Legearen 38 eta 39. artikuluetan **araupetutakoaren** arabera; eta horien aldakia erantsi dizugu.

Jakinarazi nahi dizugu, batzorde horretan enpresaren bozeramaile legez hitz egingo duzula.

Mesedez, sina ezazu gutun honen bikoizkina, jasoagiri legez eta izendapenaren onartzearen ezaugarri gisa; bide batez, begirunez agur.

Jasoa:

Sinatua:

Data:

araupetu:
regular

EREDUA, AURRENEURRIEN ESKUORDEEI EDO ENPRESAKO BATZORDEARI EDO LANGILEEN ESKUORDEEI ITAUNA EGITEKO, LARRIALDIKO NEURRIEKIN ARDURATZEN DIREN LANGILEAK IZENDATZEARI BEGIRA.¹

[Lekua], [urte]ko [hil]aren [zenbaki]a.

Jaun-andre agurgarriak:

Laneko Arriskuen Aurreneurriei buruzko Legearen 33. artikulua **xedatu** duenez, enpresarioak langileei itaundu behar die, aurretik behar den beste denborarekin, larrialdiko neurriekin arduratu behar duten langileak izendatzeari buruzko erabakiak hartzeko.

Hori dela eta, jakinarazi nahi dizuegu enpresak horrelakotzat jarraikook izendatuko bide dituela:

Jauna/Andrea: (kargua edota lanpostua)

Jauna/Andrea: (kargua edota lanpostua)

Jauna/Andrea: (kargua edota lanpostua)

Jauna/Andrea: (kargua edota lanpostua)

Izendapen horiek egiteko, honako hauek baloratu dira: **suteen** aurkako borrokaren edota **lehen sorospenen** inguruko gaitan pertsona horiek aurretik prestakuntzarik duten, bai eta zein den beraien **lansaiola** eta ze interes azaldu duten gai horren inguruan.

Mesedez, zerbait esan behar baduzue horri buruz, eman horren inguruko txostena 15 eguneko epean, Laneko Arriskuen Aurreneurriei buruzko Legearen 36. artikuluko 3. puntuaren arabera.

Beste barik, mesedez, sina ezazue gutun honen bikoizkina, jasoagiri legez eta izendapenaren onartzearen ezaugarri gisa; bide batez, begirunez agur.

Jasoa: / Sin.: / Data

1 Segurtasun eta Osasun Batzordeak izanez gero, izendapenen gai guztiak egungo aztergaien zeriendaren barruan sartu behar dira, eta batzordearen baitan eztabaidatu. horrelakoetan, gutun eredu honetan eta beste eredu batzuetan aipatu beharko litzateke segurtasun eta osasun batzordean erabilitakoa edota batzorde eskudunaren akta, hau da, proposamena onartutzat jotzen duen agiria.

xedatu
disponer

sute:
incendio

lehen sorospenak:
primeros auxilios

lansaiola
jornada laboral

EREDUA, LARRIALDIKO NEURRIEKIN ARDURATU BEHAR DUTEN LANGILEAK IZENDATZEKO.

Jaun hori / Andre hori:

[Lekua], [urte]ko [hil]aren [zenbaki]a.

Jaun agurgarria / Andre agurgarria

Aztertu dugunaren arabera, jakinarazi nahi dizugu izendatu zaitugula, enpresaren barruko pertsonen taldekidea izateko, **larrialdiko neurriekin** arduratzeko, Laneko Arriskuen Aurreneurriari buruzko Legearen 20. artikuluan eskatutakoaren arabera; eta horren aldakia erantsi dizugu.

Izendapen hau egiteko, langileen ordezkariari egin zaie itauna aurretik, lege horren 33. artikuluko 1.c) puntuan adierazitakoaren arabera.

Mesedez, sina ezazu gutun honen bikoizkina, jasoagiri legez eta izendapenaren onartzearen ezaugarri gisa; bide batez, begirunez agur.

Jasoa:

Sinatua:

Data:

ITAUN-PROPOSAMENAK EGITEKO GUTUNAREN TESTUA, AURRENEURRIEN ESKUORDE-
AK ETA IZENDATZEN DIREN LANGILEAK PRESTATZEARI BURUZ.

(Gutuna aurreneurrien **eskuordeentzat**)

(Enpresako **batzordeburua**)

(Langileen eskuordeak)

[Lekua], [urte]ko [hil]aren [zenbaki]a.

Jaun-andre agurgarriak:

Laneko Arriskuen Aurreneurriari buruzko Legearen 33.1.e) artikulua **galdatzen** duenez, enpresarioak langileei itaundu behar die, aurretik behar den beste denborarekin, “aurreneurrien arloko **prestakuntzaren** proiektu eta antolaketa”ri buruzko erabakiak hartzeari dagokionez. Enpresako aurreneurrien prestakuntzaren proiektu orokorra gertatuko da garaia denean, bada, proiektu horretaz landa, gure ustez, komeniko litzateke lehenbailehen aurrera egitea “enpresak izendatzen dituen langileen eta aurreneurrien eskuordeen” prestakuntzan; hori dela eta, egokitzen jotzen dugu, horietako batzuk joatea gutun honen **eranskin** lege dagoen egitarauko ikastaroetako batzuetara. Hori hala eginda, 37.2. artikulua bete egin da; hain zuzen ere, artikulua horrek galdatzen duenez, enpresarioak aurreneurrien eskuordeei eskuratu behar dizkie aurreneurrien arloko eskuarteak eta prestakuntza, eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren neurrian; beste alde batetik, 30.2. artikulua galdatzen duenez, izendatzen diren langileek behar hainbat gaitasun izan behar dute. Oinarrizko prestakuntza hori **utziezinezkotzat** hartzen da, arriskuen manuzko ebaluazioari heldu ahal izateko.

Mesedez, zerbait esan behar baduzue horri buruz, eman horren inguruko txostena 15 eguneko epean, Laneko Arriskuen Aurreneurriari buruzko Legearen 36. artikuluko 3. puntuaren arabera.

Beste barik, mesedez, sina ezazue gutun honen bikoizkina, jasoagiri lege eta izendapenaren onartzearen ezaugarri gisa; bide batez, begirunez agur.

Jasoa: / Sin.: / Data

eskuorde:

delegado

batzordeburu:

presidente de comisión

galdatu:

exigir

prestakuntza:

preparación

eranskin:

anexo

utziezinezko:

imprescindible

JAKINARAZPENA, BALDINTZA JAKIN BATZUK DAUDELA-ETA ENPRESAKO AURRENEURRIEN SISTEMAREN AUDITORETZA EGIN BEHARRIK EZ DAGOELA ADITZERA EMATEKO.²

[Lekua], [urte]ko [hil]aren [zenbaki]a.

Jauna/Andrea:

Izaera:

Enpresa:

Adierazpena.—Bete egin dira Aurreneurrien Zerbitzuei buruzko Araudiaren 29. artikuluan ezarritako baldintzak eta, horrenbestez, **aitorpen** honi ekarri dizkio jarraian zehaztuko diren datuak, beraiek **lan agintaritzaren eskudunak** erregistra eta kontuan har ditzan.

Enpresaren datuak:

Sortu berria	IFZ:
Lehendik dagoena	IFZ:
Sozietatearen izen edo izendazioa :	IFK:
Sozietatearen egoitza:	Udalerria:
Probintzia: Posta kodea	Telefonia
Ekonomi jarduera :	Lan istripu eta lanbide gaixotasunetarako erakunde kudeatzaile edo laguntzailea:
Lantoki mota (lantegia , bulegoa, bitegia):	Langileen kopurua:
Arriskuen ebaluazioaren egilea Data:	Eraikuntzadun azalera (m ²)

Arriskuen aurreneurri buruzko datuak:

Lanean dauden arriskuak	Aurreneurri legez egin beharreko jardura

(Lekua, data, sinadura eta enpresaren zigilua)

2 gehienez 6 langile dituzten enpresek ez dute kanpo auditoretza edo ebaluaziorik egin behar izango, baldin eta beraien jarduerak ez badaude aurreneurrien zerbitzuei buruzko araudiaren i. eranskina barruan; ez eta beste enpresa batzuetan, baldin eta enpresarioak berak bereganatzen baditu aurreneurri eginkizunak, edo langile bat edo gehiago izendatzen badu eginkizunok betetzeko; ez eta gainerako enpresetan, baldin eta aurreneurrien sistema agerikoa bada, auditoretza bat egin behar izan gabe, dela langile gutxi izateagatik, dela aurreneurri jarduerak zailtasun txikia izateagatik; bada, horietan guztietan, enpresa horiek auditoretza betebeharra bete dutela ulertzen da, jakinarazpena bidaltzen diotenean lan agintaritzako (eusko jaurlaritzako lan eta gizarte segurantzaren zuzendaritzari), baldintza jakin batzuk daudela-eta auditoretza hori, eredu honen arabera, egin beharrik ez dagoela aditzera emateko, betiere, lan agintaritzak ahalmena du, betebehar hori egin dadila agintzeko (aurreneurrien zerbitzuei buruzko araudiaren 29. artikulua).

aitorpen:
declaración

lan agintaritzaren eskudun:
autoridad laboral competente

izendazio:
denominación

ekonomi jarduera:
actividad económica

erakunde kudeatzaile:
entidad gestora

lantoki:
centro de trabajo

lantegi:
taller

eraikuntzadun azalera:
superficie construida

[* Tarte hau beharrezko datuekin bete behar da.

